



FORTUNA  
kirol elkarte  
club deportivo



## *Paseo Berriko 55. Igerialdia*

### **ANTOLATZAILEA**

Club Deportivo Fortuna Kirol Elkarte

### **BABESLEAK**

Donostia Kultura Festak, Bodegas Muriel eta BM.

### **LAGUNTZAILEAK**

Insalus, Amstel 0'0 eta Filipinos.

### **TOKIA:**

Donostia-San Sebastián

### **DATA**

2025ko abuztuaren 15ean

### **ORDUTEGIAK ETA IBILBIDEAK**

Dorsal eta Txipen banaketa Kontxako hondartzan egunean bertan egingo da **9:00**etatik **11:15**etara izango da, erlojuen ondoan. Parte-hartzaile absolutuak, Zurriola hondartzara autobusez eramango ditugu 10:30etatik 11:20ra bitartean (mapa ikusi). **Autobusa hartzeko garaiz ibili, mesedez.**

- **INFANTIL KATEGORIA:** Briefing-a 10:55etan uretan, irteera tokian. Goizeko 11:00etan Nautikotik aterako dira eta helmuga Kontxako hondartzan izango da. Ibilbideak 650 metrotako distantzia du.
- **PASEO BERRIKO IGERIALDIA:** Briefing-a 11:55etan irteera tokian, Zurriolako hondartzan. Irteera goizeko 12:00etan izango da Zurriolako hondartzatik eta helmuga berriz, Kontxako hondartzan. Ibilbideak 2959 metrotako distantzia du.



FORTUNA  
kirol elkarte  
club deportivo



*Oharra: ezinbesteko arrazoiengatik, ordutegiak eta ibilbideak aldaketa jasan dezakete. Ibilbidean kasuan B plana aktibatuko da (ikusi mapa).*

#### **OHARRAK:**

- Igerian ahoz bera egonda, Ibilbidean zehar ezker aldean utziko dituzte buiak.
- Gogoratu **debekatua** dagoela edozein motatako **ERLOJUREKIN** igeri egitea.
- Partehartzeko, antolatzaileak banatutako txanoa erabiltzea beharrezkoa da.
- Parte hartzaileek bi besoetan dortsal zenbakia idatzita eraman beharko dute.
- Saillapenaren eta denboren ofizialtasuna KRONOAK-ek bermatuko du.
- Denbora muga: **ordu 1 eta 30'takoa** izango da. Denbora hori gainditzen duten parte-hartzaileek erretiratzeko konpromisoa hartzen dute.
- Neoprenoa erabiltzea ez da zilegi, non eta Elkartea antolatzaileak ez duen beharrezkotzat jotzen parte-hartzaileen segurtasunerako (adibidez, marmokak agertzea). Behar den denborarekin jakinaraziko da, posta elektronikoz (izena-ematean adierazitako helbide elektronikora).

#### **IZEN-EMATEA:**

Izen-ematea 2025ko ekainaren 4ean eguerdiko 12:00etan irekiko da, azken eguna 2025ko abuztuaren 12an eguerdiko 12:00etan izango delarik.



FORTUNA  
kirol elkarte  
club deportivo

Izen-ematea hemen: <https://www.cdfortunake.com/eu/probak/paseo-berriko-igerialdia>

#### **Prezioak;**

- INFANTILAK: 18,00€.
- ABSOLUTOAK: Uztailaren 31arte (23:59), izen-ematea 35,00€ izango da eta abuztuaren 1etik abuztuaren 12arte (12:00) 45,00€.

Izen-ematea, absolutoetan 500 parte hartzailera mugatuko da, eta infantiletan berriz, 100 parte hartzailera. Antolakuntza taldeak beharrezko ikusten duen dortsal kopurua gordetzeko eskumena izango duelarik.

- *Baja*: Edozein arrazoi dela eta 6,00€ko atxikipenarekin bueltatuko da, eskaera egiteko epea 2025eko abuztuaren 1ean amaituko da. Data hau ondoren ziurtagiri medikuarekin bakarrik onartuko dira bajak. Kasu honetan, kopuru osoa bueltatuko da. Epea 2025eko abuztuaren 10ean amaituko da. Bajak hurrengo helbidera bidali behar dira: [ekitaldiak@cdfortunake.com](mailto:ekitaldiak@cdfortunake.com).

Informazio gehiago: [www.cdfortunake.com](http://www.cdfortunake.com), [igeriketa@cdfortunake.com](mailto:igeriketa@cdfortunake.com) eta Pio Baroja kiroldegian 943214900

#### **SAILKAPENA ETA GARAIKURRAK:**

Sailkapen orokorra, kategoria eta sexuaren arabeko sailkapenak egingo dira.

Paseo Berriko igerialdia irabazten duten emakumeak eta gizonezkoak, oroigarri gisa TXAPEL bana emango zaie.

#### **KATEGORIAK:**

- Absolutoa= Paseo Berriko igerialdiko irabazleei, emakumezkoari eta gizonezkoari, txapela bana.
- A Kategoria= 55 urte eta helduagoak.
- B Kategoria= 35 eta 54 urte bitartekoak.
- C Kategoria= 15 eta 34 urte bitartekoak.
- D Kategoria (infantilak)= 11 eta 14 urte bitartekoak.
- Ezarritako araudiaren barruan sartzen den parte-hartzaile zaharrenari aintzatespena.

Kategoria eta azpikategoria ezberdinetarako azaldutako adinak, lehiaketa burutzen den urtearen abenduaren 31ean betetakoa bezala onartuko da.

#### **SARI BANAKETA:**

- Infantilak: 11:45etan izango da, Donostiako Kontxako pasealekuan, erlojuen ondoan.
- Nagusiak: 13:45etan izango da, Donostiako Kontxako pasealekuan, erlojuen ondoan.

Parte-hartzaile guztiek probako oroigarri bat jasoko dute, igeri egiteko txanoa eta kamiseta.



FORTUNA  
kirol elkarte  
club deportivo

*\*Oharra: edizio honetan, Gipuzkoako Ur Irekien Ligan egon ez arren, Gipuzkoako Igeriketa Federazioak Gipuzkoako Ur Irekien Ligaren puntuazioa emango du, orain arte bezala.*